# KOSTALDEKO IBILBIDEA
# SENDERO LITORAL

EUSKAL KOSTALDEA COSTA VASCA

10

## BAKIO ▶ PLENTZIA

Km 20,3 | 978 m | 7 h 35´




## KOSTALDEKO IBILBIDEA

Euskaditik igarotzean, E9 “Europako Kostaldeko ibilbidea” mendiko ibilbide luze (GR) gisa seinaleztatuta dago. Ibilbide hauekin bat egiten du: GR 121® ”Talaia ibilbidea” Gipuzkoan, eta GR 123® “Bizkaiko Bira” Bizkaian.

## SENDERO LITORAL

*A su paso por Euskadi, el E9 “Sendero Litoral Europeo” se encuentra señalizado como sendero de gran recorrido. Coincide con el GR® 121 “Sendero Talaia” en Gipuzkoa y con el GR® 123 “Vuelta a Bizkaia” en el tramo vizcaíno.*




## GOMENDIOAK

Saia zaitez etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

Planifikatu ondo etapak, eta diseinatu zure aukeren arabera.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, botikina, mugikorra ondo kargatuta, dirua, dokumentazioa…).

Errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

## RECOMENDACIONES

*Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.*

*Planifica bien las etapas y adáptalas a tus posibilidades.*

*Lleva calzado y ropa adecuados teniendo en cuenta la predicción del tiempo.*

*Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, botiquín, móvil bien cargado, dinero, documentación…).*

*Respeta el entorno que visitas y al resto de senderistas.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Ed. 2025

Bakioko hondartzatik, ibilbideak berriz ere gora egiten du Jata mendiaren hegalak estaltzen dituzten baso-sailen artean, eta berriro jaitsi egiten da Armintzako portu ezkutura. Han, Ermu mendiaren hegal berdeetan barrena, Gorlizko itsasargiak erakutsiko digu gure norabidea, itsasontziak beren ibilbidean gidatzen dituen bezala, gure etapa Plentzia herri noble eta dotorean amaitu aurretik.

*Desde el arenal bakiotarra la ruta vuelve a ganar altura entre las plantaciones forestales que tapizan las laderas del monte Jata, hasta descender de nuevo al recóndito puerto de Armintza. Una vez allí por las verdes laderas del Ermu, el faro de Gorliz señala nuestro rumbo, al igual que guía a los barcos en su travesía, antes de culminar la etapa en la noble y señorial villa de Plentzia.*

20,3 km | 978 m | 7h 35’ | MIDE 1-2-2-4




### MIDE

1 Ingurunean arriskuak egon daitezke
*El medio no está exento de riesgos*

2 Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak
*Sendas o señalización que indica la continuidad*

2 Zaldibideko ibilaldia
*Marcha por caminos de herradura*

4 6 eta 10 ordu arteko ibilaldi jarraia
*De 6 a 10 horas de marcha efectiva*

### SEINALEZTAPENA
### *SEÑALIZACIÓN*

GR® 123

Ibilbidearen jarraipena
*Continuidad del sendero*

Norabide aldaketa
*Cambio de dirección*

Norabide okerra
*Dirección equivocada*

## Bidezatia / *Tramo*
## BAKIO ▶ ARMINTZA

km 0 **BAKIO.** Agur esango diogu Bakio udatiar eta txakolinguneari. Hondartzaren mendebaldean, Birjilanda bidera eramango gaituzten eskailerak bilatuko ditugu. Laster utziko dugu bide hori, eta eukalipto- eta konifero-sailen artean gorantz doan bidexka batetik igoko gara. Igoera horrek eskainiko dizkigu egun honetan kostaldearen lehen panoramikak. Baso-ustiapenak nagusi diren mendi-hegal batetik bagoaz ere, tarteka ikusiko dugu baso autoktonoaren orban batzuk berreskuratzeko urratsak egiten ari direla. BI-3125 errepidea zeharkatu ondoren, mahaiak eta barbakoak dituen gune batera iritsiko gara.

km 3,5 **JATA (Atsedengunea).** Jata eta Jata-Txiki mendien hegaletan borroka odoltsua izan zen Gerra Zibilean, indar frankistek, alemaniarren eta italiarren aireko laguntzarekin eta artilleriarekin laguntzarekin, errepublikanoen posizioei eraso baitzieten. Jata-Txiki muinoan amaitzen da igoera zati honetan. Handik, jaitsiera malkartsu bati ekingo diogu, eta BI-3117 errepidera iritsiko gara, Txatximintebekoa baserritik gertu. Armintzako portu txikira iritsi baino lehen, Urizarmendi mendia igo behar dugu oraindik, bertako baso-sailak zeharkatuz.

km 0 ***BAKIO.*** *Nos despedimos de la veraniega y txakolinera Bakio. En la zona oeste de la playa, buscamos las escaleras que nos permiten alcanzar el camino de Birjilanda, que pronto dejamos por una senda que gana altura entre plantaciones de eucaliptos y coníferas. El ascenso nos ofrece las primeras panorámicas sobre la costa en esta jornada. Aunque avanzamos por una ladera donde predominan las explotaciones forestales, a tramos comprobamos que se van dando pasos en la recuperación de algunas manchas de bosque autóctono. Tras cruzar la carretera BI-3125, llegamos a un área acondicionada con mesas y barbacoas.*

km 3,5 ***JATA (Área recreativa).*** *Las laderas de los montes Jata y Jata-Txiki fueron escenario de una cruenta batalla durante la Guerra Civil, en la que las fuerzas franquistas, con apoyo aéreo y artillero alemán e italiano, asaltaron las posiciones republicanas. El collado de Jata-Txiki marca el fin de la ascensión en este tramo. Desde aquí comenzamos un escarpado descenso que nos hará desembocar en la carretera BI-3117, cerca del caserío Txatximintebekoa. Antes de alcanzar el pequeño puerto de Armintza, aún resta salvar el monte Urizarmendi, atravesando sus plantaciones forestales.*



## EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Gorlizko ospitalearen ondoan, oharkabean pasa ohi den fenomeno geologiko bitxi bat dago: Astondoko duna fosilak, duela milaka urte sortuak haizeak garraiatutako hondarraz, hondar hori sedimentatu eta gogortuta. Ezin da haietara zuzenean sartu, baina hondartzako pasealekutik ikus daitezke.

*Junto al hospital de Gorliz encontramos un curioso fenómeno geológico que suele pasar desapercibido: las dunas fósiles de Astondo, formadas hace miles de años por arena transportada por el viento que se sedimentó y endureció. No se puede acceder directamente a ellas, pero se pueden contemplar desde el paseo de la playa.*





Ibil zaitez kalez kale Plentziako hirigune historikoan barrena; iraganeko merkataritza eta arrantzaren kutsua gorde dute bertako arrantzale-etxeek eta kaleek. Itsasadarrean dagoen portu txikian batez ere aisialdirako ontziak daude gaur egun, baina bere betiko xarmari eutsi dio halere. Bitxikeria gisa, merezi du Aramburu Farmazia Museoa bisitatzea; 1888an sortu zuten, eta jatorrizko altzariak eta antzinako objektuen bilduma interesgarria gorde ditu.

*Callejea por el casco histórico de Plentzia, donde sus casas marineras y calles conservan el aire de su pasado comercial y pesquero. El pequeño puerto, situado en la ría, acoge hoy sobre todo embarcaciones de recreo, aunque mantiene intacto su encanto tradicional. Como curiosidad, merece una visita la Farmacia Museo Aramburu, fundada en 1888, que conserva su mobiliario original y una interesante colección de objetos antiguos.*

## Bidezatia / *Tramo*
# ARMINTZA ▶ PLENTZIA

km 11,4 **ARMINTZA.** Lemoiz udalerrian dago, senadi batean. Gaur egun, aisialdirako ontziak daude portuan, baina horregatik ez du xarma apur bat ere galdu. Kaitik, itsasbehera dagoenean, Flyscharen fenomeno bitxia ikus daiteke. Bertan, gogortasun desberdineko harrien geruzak ageri dira, higaduraren mende erritmo desberdinean, eta hostopil-tartaren forma bereizgarria hartzen dute horregatik. Armintzatik, baso-pista batean barrena, eguneko azken igoerari ekingo diogu Ermua mendirantz. Harrizko babeslekura iristean, gailurrean erpin geodesiko bat duena, postontziak (panoramika on batekin) eskuinean geratzen dira. Gorlizko itsasgarira jaisteko, artadi kantauriar eder bat eta larre batzuk zeharkatuko ditugu.

km 15,7 **BILLAO.** Billao lurmuturrean, egungo itsasargiaz gain, Bigarren Mundu Gerran eraikitako kostako bateriaren hondakinak daude; erregimen frankistaren defentsen zati gisa eraiki zuten hura, bando aliatuaren balizko erasoari aurrea hartzeko. Kostaldeko lerroari jarraituz, laster izango dugu begien aurrean Askorriagako punta, eta han defentsarako beste eraikin baten hondakinak ikus daitezke: gotorleku bat, XVIII. mendean eraikia Plentziako badia babesteko. Astondoko puntan amaituko dugu etapa, eta bideak ikuspegi ederrak eskainiko dizkigu itsas pasealekuan barrena, hondartzen ondotik, Plentzia hiribilduraino.

km 20,3 **PLENTZIA.**

km 11,4 ***ARMINTZA.*** *Perteneciente el municipio de Lemoiz y situado en una ensenada, su puerto alberga en la actualidad embarcaciones de recreo sin perder un ápice de su encanto. Desde el muelle, en bajamar, puede observarse el curioso fenómeno del Flysch, donde las capas de los estratos de rocas de diferente dureza sucumben a la erosión a distinto ritmo, adquiriendo su característica forma de tarta milhojas. Desde Armintza, por pista forestal, encaramos la última ascensión del día en dirección al monte Ermua. Al alcanzar el refugio de piedra coronado por un vértice geodésico, los buzones (con una buena panorámica) quedan a la derecha. Para bajar al faro de Gorliz atravesamos un precioso encinar cantábrico y una zona de pastos.*

km 15,7 ***BILLAO.*** *En el cabo Billao, además del actual faro, se conservan los restos de la batería de costa, construida durante la Segunda Guerra Mundial como parte de las defensas del régimen franquista, destinadas a prevenir un posible ataque del bando aliado. Siguiendo la línea costera, pronto queda bajo nuestra vista la punta de Askorriaga, donde se aprecian las ruinas de otra edificación defensiva: un fortín construido en el siglo XVIII para proteger la bahía de Plentzia. El broche final de la etapa lo pone Astondo Punta, con la preciosa panorámica que nos muestra el camino a seguir por el paseo marítimo, junto a las playas, hasta la villa de Plentzia.*

km 20,3 ***PLENTZIA.***



Gorliz



Fao ingurua
Entorno de Fao

## TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Turismo bulegoak<br>*Oficinas de Turismo* | |
| Bakio | 94 619 33 95 |
| Gorliz | 94 677 43 48 |
| | 688 818 876 |
| Plentzia | 688 667 494 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | 112 SOS DEIAK |

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

- Etapa honetan baso-sailen eremu zabalak zeharkatu behar dira. Noizbait mendian lanean ari diren langileekin edo makinekin gurutzatzen bazara, kontuz ibili, ikusteko lekuan jarri eta abisatu hurbildu aurretik.

- *Esta etapa atraviesa extensas zonas por plantaciones forestales. Si en algún momento te cruzas con personal o maquinaria realizando labores en el monte, extrema la precaución, hazte visible y avisa antes de acercarte.*



Askorriaga

